

TURISMOA

BILBAO BIZKAIA HELMUGAREN 2023RAKO TURISMO-GARAPEN JASANGARRIRAKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMA

1. arloa - Kudeaketa turistikoko ekosistema indartzea

Araudia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 40/2023 Foru Dekretua, martxoaren 28koa. Honen bidez, Bilbao Bizkaia helmugaren turismo jasangarria garatzeko dirulaguntza programari lotutako oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dira, 2023 urterako (Martxoaren 31ko BAO, 64. zk.).
Xedea (1. oinarria)	Bilbao Bizkaia helmugaren garapen turistiko jasangarria.
Dirulaguntzaren onuradunak (3. oinarria)	Eskualdeko eta tokiko kudeaketa turistikoko erakundeak eta horien mendeko beste erakunde publiko batzuk: – Enkartertur Enkarterriko turismo-elkartea / Eskualdea: Enkarterri-Meatzaldea – Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea / Eskualdea: Arratia-Nerbioi – Urkiola Landa Garapenerako Elkartea / Eskualdea: Durangaldea – Urremendi Landa Garapenerako Elkartea / Eskualdea: Busturialdea-Urdaibai – Jata Ondo Landa Garapenerako Elkartea / Eskualdea: Uribe – Leartibai Fundazioa – Urduñako Udala – Getxoko Udala – Santurtziko Udala – Portugaleteko Udala – Barakaldoko Udala – Sestaoko Udala Oinarri honetan adierazitako gainerako baldintzak.
Diruz lagundu daitekeen egitatea (4. oinarria)	Bilbo Bizkaiko turismo-kudeaketako erakundeek helmugen kudeaketa turistikorako dituzten langile espezializatuak.
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak (5. oinarria)	Zuzeneko kontratazioa (administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileek izan ezik, plantillan badaude), turismoko profesional baten asistentzia edo teknikari bat duen enpresa batena, turismoko unibertsitate prestakuntza edo destinoen kudeaketa gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatua duena. Zergak eta tasak, oinarri bereko 2 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko.
Dirulaguntzen zenbatekoa (6. oinarria)	Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen % 70eko laguntza izango dute, eta kasu batean ere ez da izango 30.000 eurotik gorakoa zuzeneko kontratazioa bada eta 20.000 eurokoa, turismoko profesional batek edo enpresa batek turismoko teknikari batekin laguntza tekniko kontratatzen badu. Nolanahi ere, laguntza jasotzeko eskubidea izateko, nahitaez aurkeztu behar da 4. arloko proiektu bat (Ekosistema jasangarri baterako proiektuak sustatzea) eta arlo honetan behar diren gutxienezko puntuetara iritsiko da. Halaber, arlo honetan laguntzaren zenbatekoaren muga izango da gainerako arloetan (2tik 8ra) erakundeak lortutako zenbateko guztia.
Eskabideak aurkezteko epea (65. oinarria)	Eskabideak telematikoki aurkeztea 2023ko apirilaren 3ko 08:30etik 2023ko maiatzaren 12ko 13:30era , Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (www.bizkaia.eus/sustapena-oficinaVirtual). Horretarako, sinadura elektronikoa eduki behar du (IZENPE, NAN elektronikoa ...), edo b@kQ ziurtagiri elektronikoen bidez sartu behar du. Ziurtagiri hori gure Orueta apezpikuaren 6. zenbakiko bulegoetan eskatu ahal izango da.

	Eskabideari erantsitako dokumentazioa aurkeztea: bulego birtualaren eranskineko sistemaren bidez egindako eskabidearekin batera.
Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa (67-69 oinarriak)	• Oro har (67. oinarria): a) Azalpen-jarduketaren memoria bat, proiektuari edo ekintzari buruzko informazioa jasotzen duena. b) Gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasotzen duen memoria ekonomikoa. c) Hartzekodunaren fitxa (hala badagokio) d) Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak kontratu txikiaren zenbatekoak gainditzen dituenean, hornitzaileen hiru eskaintzak. • Berariaz (68. oinarria): a) Egin beharreko funtzioen deskribapen laburra b) Teknikaria jardunean badago, curriculum vitae eta titulazioa edo turismo-helmuguen kudeaketan egiaztatutako bi (2) urteko esperientziaren egiaztapena. Era berean, kontratua, nominak eta RNTak, edo zuzeneko kontratazioaren kasuan SSn alta ematea edo aholkularitza-kontratua. • Baloraziorako informazioa/dokumentazioa (69. oinarria). Eskabideak aurkezteko epean ez bada baloraziorako behar den informazioa ematen, ez da ebaluatuko dagokion balorazio-irizpidea. Eskabidea egiten den unean, erakunde eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat eta BEZari buruzko egoera-adierazpen bat sinatuko ditu, bulego birtualaren formularioaren arabera.
Dirulaguntza emateko prozedura (71. oinarria)	Norgehiagoka da dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura; horretarako, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarrak egingo dira.
Baloratzeko irizpideak (73. oinarria)	30 puntu behar dira gutxienez eta 60 puntu gehienez. 1. Diruz lagun daitezkeen beste jarduketa-arlo batzuetarako eskaera guztira, 30.000 €: 25 puntu. 2. 4. arloan proiektu bat aurkeztea eta onuradun izatea: 25 puntu. 3. Egungo langileak mantentzea edo emakumeak kontratatzea: 5 puntu. 4. Antzeko lanpostu batean 5 urte baino gehiagoko esperientzia: 5 puntu.
Gauzatzeko epea (89. oinarria)	Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaituko dira, eta epea luzaezina da.
Justifikazio-epea eta beharrezko dokumentazioa (90. eta 92. oinarriak)	Onuradunek 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko otsailaren 29ra arteko epean aurkeztu beharko dute azken justifikazioa. Dirulaguntza eskabidea Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez izapidetu behar da. Justifikazio-kontuan informazio hau jaso behar da: a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, non egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak adierazten diren. b) Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduaren arabera. c) Garatutako ekintzei buruzko emaitzen panela, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduarekin bat etorritik. Ezarritako gainerako betebeharrak (dirulaguntzaren zabalkundea, gardentasun-araudia betetzea, hizkuntza koofizialak erabiltzea, genero-berdintasuna, beste gizarte-politika batzuk, etab.) bete izanaren justifikazio-memoria, betebeharrak horiek bete direla egiaztatzen duten txosten, adierazpen eta dokumentuak erantsita (Bulego birtualaren formularioaren arabera).
Azpiktratatazio (91. oinarria)	Onuradunak diruz lagundutako jarduera azpiktratatatu ahal izango du, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100 arte.

Dirulaguntza ordaintzea (93. oinarria)	Eman eta onartu ondoren ordainduko dira dirulaguntzak, ordainketa aurreratu bakar baten bidez , emandako dirulaguntzaren guztizko zenbatekoarekin (bermerik eskatu gabe).
Laguntzen bateragarritasuna (95. oinarria)	Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziook edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta gastu hautagarri beretarako gehieneko laguntza-intentsitatea errespetatzen bada. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko foru-sektore publikoko bestelako erakundeek edo aurrekoen % 50eko partaidetza edo hortik gorakoa duten erakundeek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.